



## EUDEL eta Eusko Jaurlaritza elkarlanean ari dira gobernantza onaren praktikak udal politikan eta kudeaketan zabaltzeko

- Esther Apraiz elkarteburua eta Maria Ubarretxena sailburua “Tokiko Gobernantzako jardunbide aurreratuak” jardunaldian izan dira, ELoGE Europako Bikaintasunaren Zigiluaren barruan kokatuta.
- Arduradun politikoen eskutik, Basauri, Ermua, Azkoitia, Erreterria, Irun, Legazpi eta Laudioko esperientzia erreferenteak aurkeztu dira.
- Zazpi kasu arrakastatsuen gaiak hauek dira: kode etikoak, kudeaketa-planen jarraipena, GJHen aurrekontuak, herritarren kexa eta iradokizunen sistemak, kontratazioko genero-ikuspegia, herritarren partaidetza-behatokiak, eta berrikuntzarako eta lankidetzaren publiko-pribaturako hiri-laborategiak.
- Udalerrri aitzindari horiek eta beste batzuk dira Euskadiko tokiko gobernuen jardunbide egokien lehen bankuaren ernamuina.

Bilbo, 2024/11/13a. Esther Apraiz EUDELeko elkarteburu eta Derioko alkateak, Maria Ubarretxena Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak eta Conrad Zellmann Europako Kontseiluko ordezkariak “Tokiko Gobernantzako esperientzia eta jardunbide aurreratuak” jardunaldia aurkeztu dute gaur goizean, euskal udaletako hautetsiei eta teknikariei zuzenduta.

Erakunde Harremanetarako sailburuorde Xabier Ochandiano ere izan da bileran. EUDELeko zuzendari nagusi Mar Zabalak eman dio amaiera bilerari. Praktika egokien trukean parte hartzaile izan ditugu Ana Azkoitia Azkoitiko alkatea, Asier Irigorri Basauriko alkatea, Aizpea Otaegi Erreterriako alkatea eta Eric Gálvez Legazpiko alkatea, Nagore Gomarra Laudioko zinegotzia, Sergio Javier Alzaga Irungo zinegotzia eta Rosalía Herrera Ermuko zuzendari nagusia.

EUDELek eta Europako Kontseiluak bultzatutako [ELoGE “Bikaintasunaren Europako Zigilua”](#) proiektuaren barruan kokatzen da jardunaldia. Kalitatea eta berrikuntza demokratikoa ebaluatzeko sistema zorrotza da, eta 2007az geroztik arrakastaz ezarri da EAEko 23 udalerritan. Udalerrri horietako hamalauk dute bikaintasunaren aitortpen gorena. Euskadin, ELoGEk **erakunde arteko batzorde bat** eratu du, aitortza emateko ardura izango duena, EUDELek, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek osatua.

Zigiluaren bosgarren edizioaren ondoren –aurten egin da–, EUDELek eta Sailak lankidetzaren egonkorrekin jarraitzen dute, tokiko erakundeen etengabeko hobekuntzan eta kudeaketa publiko aurreratuan gobernu onaren esparruak (etika, gardentasuna, parte-hartzea, kontuak ematea...) aplikatzea sustatzeko. Hori egiten ari dira dagoeneko jardunaldian beren esperientzia aitzindariak aurkeztu dituzten zazpi udalak.

Kasu arrakastatsuek udal-politikaren eta -kudeaketaren hainbat arlo hartzen dituzte. Udal-proiektu horiek helburu komun bat dute: zerbitzu publikoetan ahalik eta kalitate eta berrikuntza handiena eskaintzea, euskal herritarren behar berriei modu eraginkor eta efizienteagoan erantzuteko gizarte-, demografia-, ekologia- eta digitalizazio-erronka handien aurrean.

EUDELeko elkarteburu **Esther Apraizek** nabarmendu duenez, EUDELek zabaldu egin nahi du "herritarrek tokiko erakundeetan duten konfiantzaren kultura, izan ere, praktika egokien bitartez administrazio publikoa gardenagoa, etikoagoa eta eraginkorragoa dela jasotzen dute". Apraizek Euskadin eta Europako Kontseiluarekin koordinatzeko konpromisoa azpimarratu du "Lankidetzaren beharrezkoa da; izan ere, udalok, pertsonetikiko dugun enpatiatik abiatuta, funtsezko zeregina daukagu demokrazia sendotzeko, hurbilen ditugun erakundeen bidez". Europa mailan, elkarteburuak honako hau nabarmendu du: "Europako proiektuaren abangoardian egon nahi dugu, batzen gaituzten eta ongizatean, kohesioan eta justizia sozialean aurrera eginarazi diguten Europako balio komunekiko konpromiso sendotik".

**Maria Ubarretxena** sailburuak nabarmendu du beharrezkoa dela erakundeen arteko lankidetzan sakontzea, administrazioak Euskadiren behar eta erronka berrietara egokitzeko. "Pertsonen egunerokoa erraztu nahi dugu, eta, horretarako, urratsak egin behar ditugu administrazioen arteko elkarreragingarritasunerantz, leihatila bakarreko ereduak bultzatu, eta desburokratizazioa eta sinplifikazio administratiboa sustatu; aurrera egingo dugu administrazio gardenago, eraginkor eta efizienteago, hurbilago, moderno eta digitalago baterantz, bikaintasuneko zerbitzu publikoak eman ahal izateko".

Bestalde, **Conrad Zellmanek**, Europako Kontseiluaren ordezkariak, hau adierazi du: "ELOGEren funtsezko alderdi bat etengabeko ikaskuntza eta udalerrien arteko jardunbide egokiaren trukea da; adibidez, herritarren parte-hartzea handitzeko erabakiak hartzean, kalitatezko zerbitzuak ematen direla bermatzeko eta administrazio ireki eta berritzailea sustatzeko. Guretzat pozgarria da EUDELi laguntzea prozesu horretan, zeinaren helburua, hain zuzen, etengabeko ikaskuntza eta baliokideen arteko trukea erraztea den."

## **Jardunbide Egokien Bankua, hamabi printzipiotan**

EUDELeko elkarteburuak ELOGE proiektua zabaltzen jarraitzeko konpromisoa hartu du, izan ere, udalerrri gehiagok dute interesa, eta udalei laguntzeko tresna berriak garatzeko konpromisoa hartu du. Besteak beste, Gobernantzako **Jardunbide Egokien Lehen Bankua** sortu da. Banku hori webgune honetan dago eskuragarri: <https://eloge.eudel.eus/eus/buenas-practicas.php>

Esperientzia eta proiektu inspiratzaileen bilduma hau Europako Kontseiluak ezarritako gobernu onaren **hamabi printzipioetan** egituratzen da: 1) parte-hartze demokratikoa; 2) giza eskubideak; 3) zuzenbide estatua; 4) etika publikoa; 5) kontuak ematea; 6) irekiera eta gardentasuna; 7) kalitatezko administrazioa, eraginkorra eta efizientea; 8) lidergoak, eskumenak eta gaitasunak; 9) erantzuteko gaitasuna; 10) ekonomia- eta finantza-kudeaketa sendoa; 11) jasangarritasuna eta epe luzerako orientazioa; 12) aldaketarako irekitasuna eta berrikuntza.

“Jardunbide egokiak biltzen jarraituko dugu, kudeaketa publikoaren esparru guztietan gobernu onaren printzipioak txertatzeko aukera dagoela erakusten lagunduko digutenak”, adierazi du Esther Apraizek.

Basauri, Ermua, Azkoitia, Errearteria, Irun, Legazpi eta Laudioko kasuak, beste [ELoGE udal](#) batzuekin batera, ekimen estrategiko honen ernamuina dira euskal erakunde guztientzat.

## Udal-esperientziak

### KUDEAKETA PUBLIKO ERAGINKOR ETA JASANGARRIA

UDALA	IZENBURUA	LABURPENA
<b>Errearteria</b>	“ <b>Kudeaketa Planaren jarraipena:</b> administrazio eraginkorrago baterantz”	Eraginkortasuna eta efizientzia ardatz dituen metodologia, Agintaldiko Planaren jarraipenean eta ebaluazioan oinarritzen dena eta helburuei eta emaitzei buruzko informazio-jario etengabea ziurtatzen duena.
<b>Azkoitia</b>	“ <b>GJHekin</b> lerrokatutako udal- <b>aurrekontua</b> ”	Udal-aurrekontua GJHekin lerrokatzeko proiektua. Horrek baliabide ekonomikoak arduraz esleitzea errazten du, baina baita ikuspegi jasangarri batekin ere (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa).
<b>Irun</b>	“Pertsonengan oinarritutako herritarrentzako arreta: <b>abisuen, kexen eta iradokizunen sistema</b> ”	Herritarren ekarpenak jasotzeko sistema, udalaren erantzun-gaitasuna hobetzen duena. Horretarako, emaitzen urteko ebaluazioa egiten da, ondoren hartu beharreko erabakietara eta etengabeko hobekuntzara bideratua.

### KUDEAKETA PUBLIKO ARDURATSUA ETA BERRITZAILEA

UDALA	IZENBURUA	LABURPENA
<b>Legazpi</b>	“ <b>Kode etikoak eta eredugarritasun</b> instituzionala Udal batean”	Udal osotasun publikoaren strategiaren funtsezko elementuak, kargu publikoentzat eta udal langileentzat bereziak. Batzorde Etikoaren garrantzia.
<b>Basauri</b>	“Parte-hartzea: <b>Herritarren behatokia</b> erabakiak hartzeko”	Herriko errealitatea ezagutzeko eta herritarrek udal zerbitzuei buruz egiten duten balorazioa ezagutzeko urteko proiektua.

<b>Ermua</b>	<b>Berrikuntza eta lankidetzaren lankidetzaren publiko-privatua:</b> Ermua Urban Lab	Hiri Laborategi Digitala: ingurune errealetan hedatu eta merkaturatu aurretik, soluzio teknologikoen (IKTak eta IoT) aplikazioak simulatzeko eta probatzeko esperientzia digitaletako ingurunea.
<b>Laudio</b>	Kontratazio arduratsua: <b>genero ikuspegia kontratazio publikoan</b>	Udalak azterlan bat egitea, Udalaren kontratazio publikoan generoaren eragina hobetzeko eta, ondorioz, sektore pribatuaren erabakietan eta kudeaketa sistemetan eragiteko gaitasuna hobetzeko.